

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

293/2021 Foru Dekretua, urriaren 14koa, Diputatu Nagusiarena, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoriozko Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana desaktibatzen duena

Diputatu nagusiaren abuztuaren 17ko 265/2020 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana aktibatu eta Euskadiko Larrialdiei Aurre Egiteko Bidean (LABI) integratu zen, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko osasun larrialdian oinarrituta.

2021eko urriaren 7an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da lehendakariaren urriaren 6ko 39/2021 Dekretua, osasun larrialdiko egoera amaitu dela adierazten duena eta indarrean zeuden neurri murriztaile/mugatzaila nagusiak bertan behera uzten dituen, baina oinarritzko prebentzio neurriei eutsiz.

Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailean integratuta dagoen Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak Arabako Foru Aldundiari jakinarazi zion 2021eko urriaren 7an desaktibatu egingo zela Euskadiko Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI), eta aktibaturik zeuden lurralde planak desaktibatzea proposatu zuen.

ALHLPren 4.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, zeinaren bidez diputatu nagusiari ahalmena ematen baitzaio planaren zuzendaritzarako, Lurralde Orekaren Saileko diputatuaren proposamenez, hau

PROPOSATZEN DUT

Lehenengoa. Desaktibatzea Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana, 2021eko urriaren 7tik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA